



AKTEA/12

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2023-04-25)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2023-04-25 (Asteartea)
Lekua:	Irakaskintza kalea 14-16 (Gizarte eta Kultura Etxeko batzar gela)
Hasiera-ordua:	08:32
Amaiera-ordua:	08:39
Alkate-Presidentea:	PLATAS ARENAZA M. IDOYA
Batzordekideak:	LEIZAOLA ZULUETA MAITANE ZUMETA GARRO ALAZNE LEGARRETA ERKIAGA IBON ZUMETA GARRO KEPA
Bertaratu ez direnak:	ABAROA CANTUARIENSE ARITZ (2023/1542 zenbakidun Alkatetza Dekretua)
Idazkaria:	LEJARRAGA URIARTE JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C4ADE00L9B5K4L0L5P6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
25/04/2023
MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-ALKATEORDEA - 25/04/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/04/2023
14:30:36

DOCUMENTO: 20230805598

Datea: 25/04/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2023-04-18 TGB (11)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.- Bizkai Buru kalea 6. zenbakiko eraikinaren beheko plantako 5. lokalean egindako etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia onartzea.
- 4.- Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzeta-hitzarmena (HAZINNOVA) sinatzea onartzea.
- 5.- 2023ko Lokalbide programako dirulaguntzaren deialdia onartzea.
- 6.- ***6784** NAN zenbakidun langileari diziiplina espedientea zabaltzea onartzea.
- 7.- ***0463** NAN zenbakidun diziiplina espedientea zabaltzea onartzea.
- 8.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 9.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta jarraian deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiak heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2023-04-18 TGB (11)

Bertaratutako batzarkideek 2023ko apirilaren 18ko 11/2023 akta irakurrita, aho batez onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERRENDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- BIZKAI BURU KALEA 6. ZENBAKIKO ERAIKINAREN BEHEKO PLANTAKO 5. LOKALEAN



EGINDAKO ETXEBIZITZAREN BIZIGARRITASUN LIZENTZIA ONARTZEA.**Xedea**

Bizkai Buru kalea 6. zenbakiko eraikinaren beheko plantako 5. lokalean egindako etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2021ko apirilaren 15ean ***0466** NAN zenbakidunak, Bizkai Buru kalea 6. zenbakiko eraikinaren beheko plantako 5. lonjan etxebizitza bezala egokitzeko obra lizentzia eskaria egin eban. 2021ko maiatzaren 21ean eta 2022ko urtarrilaren 10ean ***0466** NAN zenbakidunak, dokumentazio osagarria aurkeztu eban.

Bigarrena: 2022ko otsailaren 7an udal arkitektoak aldeko txostena egin eban.

Hirugarrena: 2022ko otsailaren 7an obra lizentzia emon baino lehen, hondakinen kudeaketarako 185,19 euroko fidantza ipintea eskatu jakon ***0466** NAN zenbakidunari.

Laugarrena: 2023ko martxoaren 14an Bizkai Buru kalea 6. zenbakiko eraikinaren beheko plantako 5. lokalean egindako etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia eskatu eban. 2023ko apirilaren 18an dokumentazio osagarria aurkeztu da.

Bosgarrena: 2023ko apirilaren 18an udal arkitektoak txostena egin eban.

Argudioak

Lehenengoa: Nahiz eta udal arkitektoak 2022ko otsailaren 7an aldeko txostena egin eban, obra lizentzia ez zan emon eskatutako fiantzak ez diralako ipini udal honetan. Nahiz eta obra lizentzia ez dan emon, obrak egin dira eta udal arkitektoak 2022ko otsailaren 7an egindako txostenean ezarritako baldintzak bete dira, 2023ko apirilaren 18an udal arkitektoak egindako txostenean aipatzen dan lez:

Eskariari dagokion dokumentazioa aurkeztu da:

1. Alta aitortpena hiri ondasunak zergapetzeko.
2. Obraren bukaerako ziurtagiria.
3. Obraren amaierako memoria eta likidazioa (15.398,67 € egite materialean).
4. Obraren amaierako planoak.
5. Obrako kalitate kontrolaren liburua eta ziurtagiria.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C4ADE00L9B5K4L0L5P6

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/04/2023
MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-ALKATEORDEA - 25/04/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/04/2023 14:30:36

DOCUMENTO: 20230805598
Data: 25/04/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



6. Obraren agindu-liburua.

2023ko apirilaren 14an egindako ikuskapenean ikusi dut egindakoa lizentzia eskatzeko dokumentuekin bat datorrela, oker edo hutsik ezean.

Bigarrena: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xedatutakori jarraituz, 207 artikuluan aipatutako ekintzak hirigintzako lizentzia behar dabe, besteak beste obren lehenengo erabilpenak.

Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 r) eta 210 artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen dauan ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoan araudiarekin bat dator. Era berean, eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2020ko ekainaren 6an egindako txostenena aipatzen dan lez.

2/2006 Legearen 207. artikulua.– *Hirigintzako lizentzia behar duten ekintzak.*

1.– *Jarraian adierazten diren ekintza hauek guztiek hirigintzako lizentzia behar dute –horrez gainera, aplikatzekoa den sektore-legeriak eskatutako baimenak ere lortu beharko dira–:*

r) *Obren edo obra-zatien lehenengo erabilpena eta obra horien aldaketa; baita eraikuntzaren rabilerak aldatzea ere –osorik edo zati batean–.*

2/2016 Legearen 210. artikulua.– *Hirigintzako lizentzia emateko prozedura orokorra.*

1.– *Hirigintzako lizentzia emateko prozeduraren hasiera, instrukzioa eta ebazpena, betiere, kasuan kasuko udal-ordenantzek arautuko dute. Udal-ordenantza horiek, gutxienez, hurrengo paragrafoetan adieraziko diren arauak errespetatu beharko dituzte.*

2.– *Lizentzia emateko prozedura interesdunak berak eskatuta hasiko da. Honako hauek erantsi behar zaizkio interesdunaren eskaerari:*

a) *Dagokion proiektua, eskumena duen teknikariak sinatuta eta kasuan kasuko elkargo profesionalak ikusonetsita.*

Proiektu horren memoriak, ezelan ere, aplikatu beharrekoak diren eta erantzuna ematen dien hirigintza- zehaztapenak adierazi beharko ditu, legearen arabera proiektu teknikoaren beharra duten obrak direnean; beste kasu batzuetan, berriz, egikaritu beharreko obren gutxi gorabeherako aurrekontua adieraziko du.

Proiektu teknikoak ikus-onetsi behar dituzten elkargo profesionalak, baldin eta izapide hori egitean hirigintzako legeria ez dela bete ikusten badute, administrazioari jakinaraziko diote beren iritzia, ikus-onespena hirigintza-ondorioetarako ukatuz.



- b) Kasu bakoitzean aplikatu beharreko legeriak exijitzen dituen baimenak.
- c) Dagokion emakida, baldin eta gauzatu nahi den ekintzak jabari publikoa okupatzea edo erabiltzea eskatzen badu.

3.– Prozeduraren instrukzioan zehar, baldin eta lizentziak eragiten dien beste herri-administrazio batzuek–kontzejuak barne– txostena egitea beharrezkoa bada, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean beren eskumenekoak diren alderdiei buruzko txostena egin dezaten. Epe horretan txostenik egiten ez bada, aurrera egin ahal izango du udal-lizentzia emateko prozedurak.

4.– Lizentzia eman baino lehen, udal-zerbitzuek nahitaezko txostena egingo dute eskatutako lizentzia hirigintzako legezkotasunarekin bat datorren ala ez adierazteko.

5.– Ebazpenak ezezkoa denean, arrazoitu egin beharko da. Berariaz aipatu beharko dira lurraldeko, hirigintzako edo, hala badagokio, bestelako antolamenduko zein ararekin kontraesanean dagoen lizentzia behar duen ekintza, operazio edo jarduera.

6.– Lizentzia eman egin dela iritziko zaio, baldin eta eskaera aurkeztu ondoren ebazteko dagoen gehienezko epea inolako ebazpenik jakinarazi gabe igarotzen bada.

Lizentzia emateko presuntziazko egintza horren egiaztatzea eskatu ahal izango da hurrengo 20 egunen barruan, froga modura erabili ahal izateko.

7.– Aplikatu beharreko araudiak ebazpena jakinarazteko epea zenbatekoa den berariaz jasotzen ez badu, berariazko ebazpen horren jakinarazpena egiteko, gehienez, hiru hilabete emango dira, lizentziarako eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita –baldin eta eskaera hori zuzentzeko edo hobetzeko errekerituz udalak jakinarazpenik egin ez badu–.

2187/ 1978 EDren 3. artikulua:

1. Las licencias se otorgarán de acuerdo con las previsiones y determinaciones de la Ley del Suelo, de los Planes de Ordenación Urbana y Programas de Actuación Urbanística y, en su caso, de las Normas Complementarias y Subsidiarias del Planeamiento o de las Normas y Ordenanzas reguladoras sobre uso del suelo y edificación.

2. Toda resolución que otorgue o deniegue licencia deberá ser motivada.

2187/ 1978 EDren 4. artikulua:

1. El procedimiento de otorgamiento de las licencias se ajustará a lo establecido en la legislación de Régimen Local.

2. En todo expediente de concesión de licencia constará informe técnico y jurídico, cuando la Entidad otorgante cuente con los servicios correspondientes o le sea posible contar con los de la Entidad comarcal o metropolitana en que esté integrada. Si la Diputación Provincial tuviese establecido servicio de asistencia urbanística a los Municipios, podrá solicitar el Ayuntamiento informe del mismo, si no contase con servicios técnicos o jurídicos propios.



Sinadurea eta data



Hirugarrena: Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki-administrazioen Oinarriak arautzen dauan 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, hirigintza lizentziak emateko eskumena Alkatearen da, baina eskumen hori 2022ko ekainaren 16ko 2037. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Bizkai Buru kalea 6. zenbakiko eraikinaren beheko plantako 5. lokalean egindako etxebizitzaren bizigarritasun lizentzia emotea.

BIGARRENA: Egindako obren aurrekontua 15.398,67 eurokoa izan da.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

4.- BERMEOKO UDALAREN ETA INNOBASQUEREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA (HAZINNOVA) SINATZEA ONARTZEA.

Xedea

Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzahitzarmena (HAZINNOVA) sinatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren ardatz nagusienetariko bat herriaren garapen ekonomikoa sendotzea da eta helburu hau lortzeko ezinbestekoa da enpresen lehiakortasuna bultzatzea.

Lankidetzahitzarmen honekin Bermeoko mikroenpresa industrialetan (10 langile baino gutxiagoko enpresa industrialak) ikuspegi berritzailea bultzatu nahi da, enpresak lehiakorragoak izan daitezen, mikroproiektu berritzaileak bultzatuz.

Bigarrena: Hazinnova programa negozioen produktu eta prozesuetan berrikuntza ez-teknologikoko mikroproiektuak egitean datza. Hainbat jarduera-eremu daukaz: ekonomia eta finantzak, produkzioa, logistika, bezeroak, pertsonak, merkatu berriak, produktua eta barneko prozedurak. Programa erraza, azkarra (50 ordu) eta doakoa da ETEentzat, euren lehiakortasuna areagotzeko eta denbora-tarte labur batean inpaktu handiko emaitzak lortzeko helburua daukana.

Hirugarrena: Mikroenpresak, orokorrean, lehiakortasuna hobetzeko programetatik kanpo



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C4ADE00L9B5K4L0L5P6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/04/2023
MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-ALKATEORDEA - 25/04/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/04/2023 14:30:36

DOCUMENTO: 20230805598

Data: 25/04/2023

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000C4ADE00L9B5K4L0L5P6



geratzen dira langile gitxi edota fakturazio baxua izaten dabelako. Horregaitik, Hazinnova programa aukera bikaina izango da gure esparruko mikroenpresei laguntza eskaintzeko.

Laugarrena: Bermeoko Udalak Hazinnovaren proiektuaren eragile gisa, Innobasqueren aldetik jasoko dauan zenbatekoa aldatu egingo da programan parte hartzen dauan enpresa-motaren arabera:

- Urriaren 26a baino lehen Hazinnova programaren barruan lehenengo aldiz mikroproiektu bat martxan jarri dauan enpresa bakoitzeko,600 €
- Urriaren 26a baino lehen mikroproiektu bat martxan jarri dauan enpresa bakoitzeko, 300€ Hazinnova programan parte hartzen dauan lehenengo aldia ez bada.

Zenbateko hori jaso ahal izateko, gitxienez, 5 mikroproiektu jarri beharko dira martxan eta, gehienez, 15.000 € jaso ahal izango dira.

Bosgarrena: 2023ko apirilaren 13an, Behargintzako Zuzendariak hitzarmenaren justifikatze memoria egin dau.

Seigarrena: 2023ko apirilaren 19an Bermeoko Udaleko IdazkaritzaSaileko AOTk txosten juridikoa egin dau.

Argudioak

Lehenengoa: Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau bere 5. artikulua, Toki Errejimenaren Testu Bateratua onartzen dauan 781/1986 EDLaren 111. Artikulua, Herri Administrazioen Prozedura Adminitratibo Orokorra onartzen dauan 39/2015 Legearen 86. artikulua, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 17. Artikuluan, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeak bere 6. Artikulua eta Sektore Publikoaren Errejimen Juridikoa arautzen dauan 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengokoak, eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 28.1 artikulua hartu dira kontutan.

Bigarrena: Hitzarmena onartzeko ahalmenari jagokonez, Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legearen 21.1.s) artikuluan jasotakoaren arabera, alkateari jagoko, baina 2022ko ekainaren 16ko 2037. zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu batzarrarengan dago delegatuta.

Hirugarrena: Innobasque (irabazi asmorik gabeko erakunde pribatua) eta Bermeoko Udalaren

/



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E7000C4ADE00L9B5K4L0L5P6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udal)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/04/2023
MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-ALKATEORDEA - 25/04/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/04/2023 14:30:36

DOCUMENTO: 20230805598

Fecha: 25/04/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E7000C4ADE00L9B5K4L0L5P6



arteko lankidetzaren eta horren ondorioz Bermeoko Udalak eskuratuko dauen dirulaguntzaren baldintzak zehaztu eta hitzartzea ezinbestekoa ikusten da, alde bien betebeharrak eta eskubideak jasotzeko, besteak beste.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: HAZINNOVA ekimena egiteko, Bermeoko Udalaren eta INNOBASQUEren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea.

BIGARRENA: Interesdunari erabagiaren barri emotea, hitzarmena sinatu daien.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari, Ekonomia Sailari eta Diruzaintzari erabagiaren barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkurean erabagi honen barri emotea.

5.- 2023KO LOKALBIDE PROGRAMAKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA ONARTZEA.

Xedea

2023ko Lokalbide programako dirulaguntzaren deialdia onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udalaren ardatz nagusienetarikoa Bermeoko Alde Zaharraren dinamizazioa da eta garapen ekonomikoa bultzatzea da.

Bigarrena: Lokalbide dirulaguntzaren helburua, alde batetik, Alde Zaharra ekintzaileentzako gune erakargarria bihurtzea eta bizitasuna emotea da eta, beste aldetik, jarduera gabeko lokal hutseei bisibildadea emotea.

Hirugarrena: Lokalbideko dirulaguntza argitaratu zenetik gaur egun arte, hamabost ekintzailek bere negozioa ireki dute. 2021eko deialdian 5 eta 2022ko deialdian 10 enpresa ireki dira.

Laugarrena: 2023ko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarrien aldaketa 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran onartu dira.

Argudioak

Lehenengoa: 2023ko Lokalbide programako dirulaguntzaren oinarrien aldaketa 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran onartu ondoren, deialdia onartu behar da.



Bigarrena: Erabakia hartzeko ahalmenari jagokonez, 2022ko ekainaren 16ko 2037 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen arabera, dirulaguntzak emoteko deialdiak onartzea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: 2023ko Lokalbide programako dirulaguntzaren deialdia onartzea.

BIGARRENA: Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak eskatutako informazioa jakinaraztea Datu Baseari.

HIRUGARRENA: Idazkaritza Sailari eta Berualari erabaki honen berri ematea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea

6.- ***6784** NAN ZENBAKIDUN LANGILEARI DIZIPLINA ESPEDIENTEA ZABALTZEA ONARTZEA.

Xedea

Diziplina espedientea zabaltzea: ***6784** NAN zenbakidun Kirol Saileko harreragile-sarrera kontrolatzailea.

Aurrekariak

Bakarra: 2023ko martxoaren 20an Kirol Saileko zuzendariak, ***6784** NAN zenbakidun harreragile-sarrera kontrolatzailearen jarrera desegokiari buruzko txostena aurkeztu du, honako hau eskatuz:

“...dagokion tramitazioa eman eta beharrezkoak diren neurriak har ditzaten”

Argudioak

Lehenengoa: Kirol Saileko zuzendariak harreragile-sarrera kontrolatzailearen jarrera desegokiari buruz honako hauek adierazi ditu:

- Harreragile-sarrera kontrolatzailearen lan egutegia, batez ere asteburuetakoa da, zapatueta eta domeketan lan egiten dau eta astelehen batzuk.
- Azken urteetan ahozko oharrak zein espedienteak izan ditu bere jarrera desegokiagatik, azkena 2020an, domeka batean lanean ez zenean etorri eta



kiroldegia bere orduan ez zelako ireki, besteetan jarrera desegokia izateagatik abonatuekin zein lankideekin.

- Martxoaren 12an, domekan, langilea ez zegoen kiroldegia irekitzeko orduan. Goizeko 08:50ean egon behar zen harrerako langilea bere lanpostuan, ordenagailuak, kamarak, tornoak eta abarrekoak martxan jartzeko, bestela erabiltzaileak sartzen direnean sistema ez dabil.
- ***6784** NAN zenbakidun Kirol Saileko harreragile-sarrera kontrolatzaileak, lo geratu zela esan zion Kirol Saileko administrariari.
- Sartzeko ordua 08:50 zen eta 09:23an fitxatu zuen. Guztira 33 minutu berandu.

Txostenean adierazten denez, langilek oharrak zein espedienteak izan ditu bere jarrera desegokiagatik.

Bigarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 93. artikulua honako hau xedatzen du:

“93. artikulua. Diziiplina-erantzukizuna.

1. Funtzionario publikoak eta langile lan-kontratudunak kapitulu honetan eta estatutu hau garatzeko Funtzio Publikoko legeek ematen dituzten arauetan ezarritako diziiplina-araubideari lotuta egongo dira.

Hirugarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak aurreikusten dituen berme guztiak errespetatu behar dira, eta diziiplina-ahala erabili, 94.2 artikuluan arautzen diren legezketasunaren, tipikotasunaren, proportzionaltasunaren, atzeraeraginik ezaren eta errugabetasun-presuntzioaren printzipioen arabera:

“Artículo 94. Ejercicio de la potestad disciplinaria.

1. Las Administraciones Públicas corregirán disciplinariamente las infracciones del personal a su servicio señalado en el artículo anterior cometidas en el ejercicio de sus funciones y cargos, sin perjuicio de la responsabilidad patrimonial o penal que pudiera derivarse de tales infracciones.”

Laugarrena: Halaber, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XII Tituluaren I kapituluak Diziiplina-araubidea xedatzen du, eta 174. artikuluan diziiplina-araubidearen printzipioak ezartzen dira:

“174. artikulua.– Diziiplina-araubidearen printzipioak.



Honako hauek dira diziplina-araubidearen printzipioak:

a) Falten nahiz zehapenen legezkotasun- eta tipikotasun-printzipioa:

1.– Lege honetan edo beste lege batzuetan faltatzen tipifikatutako egintzengatik edo ez-egiteengatik bakarrik zehatu ahal izango dira funtzionario publikoak.

2.– Garapeneko erregelamenduko xedapenek zehaztu eta mailakatu ditzakete lege honetan ezarritako arau-haustek eta zehapenak, haien izaera edo mugak aldatu gabe.

3.– Arau-haustek eta zehapenak definitzen dituzten arauak ez dira analogiaz aplikatuko.

b) Atzeraeraginik ezaren printzipioa zehatzeko xedapenak ustezko arau-hauslearen kalterako badira, eta atzeraeragineko printzipioa haren mesederako badira.

c) Proporzionaltasun-printzipioa, zeina arau-haustek eta zehapenak sailkatzerakoan nahiz aplikatzerakoan erabiliko baita.

d) Erruduntasun-printzipioa.

e) Errugabetasun-presuntzioaren printzipioa eta defentsarako frogabide egokiak erabiltzeko eskubidea.

f) Non bis in idem printzipioa, subjektu-, gertakari- eta oinarri-berdintasuna dagoenean.”

Jakinarazitako jarrera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 177. artikuluan aurreikusitako hutsegitea izan daitezke:

“177. artikulua.– Arau-hausteen tipifikazioa.

1.– Kapitulu honetan, beste lege batzuetan edo, hala dagokionean, garapen-erregelamenduetan tipifikatutako edozein eginbehar edo betebehar ez betetzea dakarten egintzak edo ez-egiteak dira diziplina-faltak.

2.– Hona hemen diziplina-falten sailkapena:

a) Oso astunak.

b) Astunak.

c) Arinak



***6784** NAN zenbakidun harreragile-sarrera kontrolatzailearen jarrera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legean ezarritako falta izan daiteke, 180.g) eta i) artikuluetan adierazitakoak, hain zuzen ere:

“180. artikulua.– Falta arinak.

Falta arinak dira:

- a) Begirune, arreta edo errespeturik gabe jokatzea herritar, nagusi, lankide edo mendekoekiko harremanetan, betiere falta astuntzat jotzen ez bada.
- b) Herritarrei behar duten informazioa ez ematea, informazio hori langileek funtzioak gauzatzen dituzten unitatearen eskumenekoa bada.
- c) Kalteak eragitea Administrazio publikoaren ondasun eta dokumentuei eta behar besteko ardu rarik gabe jardutea haien kontserbazioan, betiere jokabide horiek falta astuntzat jotzen ez badira.
- d) Behar ez bezala erabiltzea beren funtzioak bete ahal izateko Administrazio publikoak eskura jarritako baliabide telematikoak, betiere jokabide hori falta astuntzat jotzen ez bada.
- e) Lanaldiaren barruan, eta bidezko arrazoirik izan gabe, lanpostuan ez egotea, betiere falta astuntzat jotzen ez bada.
- f) Ez betetzea Administrazio publikoak bidaltzen dizkien inkestak, lanpostuei eta funtzioei buruzkoak, Administrazioaren egiturak arrazionalizatzeko xedez egiten direnak.
- g) Lan-ordutegia ez betetzea, bidezko arrazoirik gabe, betiere falta astuntzat jotzen ez bada.
- h) Egun batean lanera ez joatea bidezko arrazoirik gabe.
- i) Norberaren funtzioak eta zereginak betetzerakoan, zabarkeriaz edo ardurarik gabe jokatzea, betiere falta astuntzat jotzen ez bada
- j) Ez betetzea enplegatu publikoen eginbehar eta betebeharrak edo etika- eta jokabide-printzipioak, betiere falta astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez bada.”

Bosgarrena: Falta kalifikatzeko, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 181. artikuluan ezarritako irizpideak hartu behar dira kontuan:

“181. artikulua.– Falta kalifikatzeko irizpideak.

1.– Falta modura kalifikatu daitezkeen egintzak tipifikatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Zer gradutan urratu den legeria.
- b) Interes publikoan edo herritarren edo Administrazioaren ondarean zein ondasunetan eragindako kalteen larritasuna.



c) Administrazioaren irudi publikoaren izen onaren galera.

2.– Euskal administrazio publikoek erregelamenduz ezarri ahal izango dute nola antolatu irizpide horien aplikazio praktikoa.”

Beraz, hutsegitea tipifikatzerakoan, oso garrantzitsua da goian aipatutako artikulua zehazten dituen irizpenak kontuan hartzea, horren arabera hutsegitea neurtu ez ezik zigorraren maila ere jartzen baita, eta 184. artikuluan zehapenak mailakatzeko irizpideak finkatzen dira.

Kasu honetan, argi geratu da ***6784** NAN zenbakidun harreragile-sarrera kontrolatzailearen jarrerak herritarrengan eragin duen kaltea, bere lanpostuan sasoiz laneratzen ez bada ezin da kiroldesia modu egokian ireki, eta horrela gertatu zen martxoaren 12an; kirol zuzendariak adierazi duenez kiroldesia era desegokian ireki zen *“inongo kontrol eta seguridade barik, torneoak ez zuten funtzionatzen, argiak piztu barik, eta abarrekoak.”*

Seigarrena: Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen III. kapituluaren diziplina-zehapenak arautzen dira, eta konkretuki, 183.3 artikuluan arau-hauste arinengatik jarri daitezkeen zehapenak ezartzen dira:

“3.– Zehapen hauek ezar daitezke falta arinengatik:

- a) Funtzio- eta ordainsari-gabetzea, edo, langile lan-kontratudunen kasuan, enplegu- eta sol data-gabetzea, egun batetik hogeita hamar egun artekoa.
- b) Dhartarazpena, Administrazioaren irudi publikoan izandako eraginaren arabera.
- c) Etika publikoari buruzko prestakuntza-programak edo -ikastaroak egin behar izatea, baita egindako arau-haustearen izaerarekin zerikusia dutenak ere.”

Zazpigarrena: Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 23ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikuluan ezarritakoaren arabera, alkateari dagokio hutsegiteak zehatzea.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: ***6784** NAN zenbakidun harreragile-sarrera kontrolatzaileak izandako jarrera desegokiagatik, bai bere lanpostuko funtzioak betetzerakoan, bai abonatuarekin eta lankideekin, abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 173. eta 177. artikulua eta Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 95. artikulua ezarritakoaren arabera, ***6784** NAN zenbakidun harreragile-sarrera kontrolatzaileari



diziplina-espedita hastea, ustezko diziplina-erantzukizuna ebazteko, arestian azaldutako gertakariengatik.

BIGARRENA: Espedientearen instruktore udal honetako funtzionarioa den Karmele Muñoa Arrigain andrea izendatzea.

HIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, eta jakinarazi ezespren-eskubidea baliatu ahal izango duela instruktorea izendatzeari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

LAUGARRENA: Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 185.7 artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki hau langileen ordezkariari jakinaraztea.

7.- ***0463** NAN ZENBAKIDUN DIZIPLINA ESPEDIENTEA ZABALTZEA ONARTZEA.

Xedea

Diziplina espedita zabaltzea: ***0463** NAN zenbakidun Kirol Saileko igeriketa monitorea-soroslea.

Aurrekariak

Bakarra: 2023ko martxoaren 20an Kirol Saileko zuzendariak, ***0463** NAN zenbakidun igeriketako monitorea-sorosleak bere funtzioak ez betetzearen ondorioei buruzko txostena aurkeztu du, honako hau eskatuz:

“...dagokion ondorioa izan dezan, espedita bideratzea, ohartarazpena, edota abarrekoak”

Argudioak

Lehenengoa: Kirol Saileko zuzendariak igeriketako monitorea-sorosleak bere funtzioak ez dituela betetzen adierazi du, honako hauek, hain zuzen ere:

1. Udal langileak ez duena egiten, azpikontrataturako zerbitzu enpresaren langileak egin behar dute, adibidez, soinu-ekipoa monta igerilekuan saioa hasi aurretik, eta amaitzen denean jaso eta bere lekuan utzi.
2. Kaleak ez dituzenez markatzen, erabiltzaileak ez dakite ze kale ezta zenbat kale dauden erabilgarri igerilekura doazenean.
3. Ez dituzenez asistentziak kontrolatzen “tablet”-ean ezinezkoa da asistentzien jarraipena



egitea, azken hau koordinatzaileak egiten du, hau da, bere jarrerak, oztopatu egiten dau beste langileen eginkizunen betepena.

4. Monitore-sorosleen kokapena (mahaia eta aulkia) dutxen alboan dago, berak aldatu egiten dau, eta jartzen duen lekutik ezin du ikusi dutxen tunela, hau horrela izanik, ez du bermatzen erabiltzaileek oinarritzko higieena betetzen dutela.

5. Langilearen portaerak ezinegona sortzen du langileen eta erabiltzaileen artean, ez baitu errespetatzen eta ez baitu errespetarazten igerilekua erabiltzeko araudia.”

Txostenean adierazten denez, langilea ohartarazi da, baina bere jarrerari eusten dio, eta bere eguneroko eginkizunak bete gabe jarraitzen du.

Horrez gain, CPR SERVEIS INTEGRALS, S.L. enpresak bere langilearen kexei buruzko txostena aurkeztu dio Bermeoko Udalari, gertatutako egoerak berriro gertatu ez daitezen.

CPR SERVEIS INTEGRALS, S.L. enpresa, Kirol Saileko jarduera zuzenduak garatzeko eta emateko kontratatutako enpresa da, igerilekuko kirol jarduerak barne.

Aurkeztutako txostenean, CPR SERVEIS INTEGRALS, S.L. enpresak, ***5672** NAN zenbakidun langileak egindako kexak helarazten dizkio Bermeoko Udalari, ***0463** NAN zenbakidun Kirol Saileko igeriketa monitore-sorosleak izandako jarrera desegokiak, jarrera txarra eta, nolabait ere, oldarkorra, CPRko langileen lana zailtzen duena, jarrera horiek gehiago ez sortzeko eta egoera hori bertan behera uzteko izapideak hasteko eskatuz. Izan ere, 2023ko martxoaren 26an, jarrera horien ondorioz, CPR SERVEIS INTEGRALS, S.L. enpresako langileak, Kirol zuzendariari gertatutakoa jakinarazi ondoren, horrek Udaltzaingoara deitzea erabaki zuen.

Bigarrena: 2022ko abuztuaren 9an, 2022ko urriaren 14an eta 2023ko martxoaren 15ean kirol zuzendariak gertatutakoen parteak egin zituen, txostenean adierazten den bezala, *langileari bere portaera okerra zuzentzeko aukera emateko* helburuarekin.

Hirugarrena: Kirol zuzendariak sorosleen betebeharrak erantsi dizkio txostenari, ***0463** NAN zenbakidun igeriketako monitore-sorosleak bere funtzioak ez dituela betetzen egiaztatzeko.

Laugarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 93. artikulua honako hau xedatzen du:



“93. artikulua. Diziplina-erantzukizuna.

1. Funtzionario publikoak eta langile lan-kontratudunak kapitulu honetan eta estatutu hau garatzeko Funtzio Publikoko legeek ematen dituzten arauetan ezarritako diziplina-araubideari lotuta egongo dira.

Bosgarrena: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak aurreikusten dituen berme guztiak errespetatu behar dira, eta diziplina-ahala erabili, 94.2 artikuluan arautzen diren legezketasunaren, tipikotasunaren, proportzionaltasunaren, atzeraeraginik ezaren eta errugabetasun-presuntzioaren printzipioen arabera:

“Artículo 94. Ejercicio de la potestad disciplinaria.

1. Las Administraciones Públicas corregirán disciplinariamente las infracciones del personal a su servicio señalado en el artículo anterior cometidas en el ejercicio de sus funciones y cargos, sin perjuicio de la responsabilidad patrimonial o penal que pudiera derivarse de tales infracciones.”

Bosgarrena: Halaber, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XII Tituluaren I kapituluak Diziplina-araubidea xedatzen du, eta 174. artikuluan diziplina-araubidearen printzipioak ezartzen dira:

“174. artikulua.– Diziplina-araubidearen printzipioak.

Honako hauek dira diziplina-araubidearen printzipioak:

a) Falten nahiz zehapenen legezketasun- eta tipikotasun-printzipioa:

1.– Lege honetan edo beste lege batzuetan faltatzat tipifikatutako egintzengatik edo ez-egiteengatik bakarrik zehatu ahal izango dira funtzionario publikoak.

2.– Garapeneko erregelamenduko xedapenek zehaztu eta mailakatu ditzakete lege honetan ezarritako arau-hausteak eta zehapenak, haien izaera edo mugak aldatu gabe.

3.– Arau-hausteak eta zehapenak definitzen dituzten arauak ez dira analogiaz aplikatuko.

b) Atzeraeraginik ezaren printzipioa zehatzeko xedapenak ustezko arau-hauslearen kalterako badira, eta atzeraeragineko printzipioa haren mesederako badira.

c) Proportzionaltasun-printzipioa, zeina arau-hausteak eta zehapenak sailkatzerakoan nahiz aplikatzerakoan erabiliko baita.

d) Erruduntasun-printzipioa.



e) Errugabetasun-presuntzioaren printzipioa eta defentsarako frogabide egokiak erabiltzeko eskubidea.

f) Non bis in idem printzipioa, subjektu-, gertakari- eta oinarri-berdintasuna dagoenean.”

Jakinarazitako jarrera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 177. artikuluan aurreikusitako hutsegitea izan daitezke:

“177. artikulua.– Arau-hausteen tipifikazioa.

1.– Kapitulu honetan, beste lege batzuetan edo, hala dagokionean, garapen-erregelamenduetan tipifikatutako edozein eginbehar edo betebehar ez betetzea dakarten egintzak edo ez-egiteak dira diziplina-faltak.

2.– Hona hemen diziplina-falten sailkapena:

- a) Oso astunak.
- b) Astunak.
- c) Arinak

***0463** NAN zenbakidun igeriketako monitore-soroslearen jarrera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 178.k) edo 179.k) artikuluetan ezarritako falta izan daiteke.

Seigarrena: Faltak kalifikatzeko, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 181. artikuluan ezarritako irizpideak hartu behar dira kontuan:

“181. artikulua.– Faltak kalifikatzeko irizpideak.

1.– Falta modura kalifikatu daitezkeen egintzak tipifikatzeko, honako hauek hartuko dira kontuan:

- a) Zer gradutan urratu den legeria.
- b) Interes publikoan edo herritarren edo Administrazioaren ondarean zein ondasunetan eragindako kalteen larritasuna.
- c) Administrazioaren irudi publikoaren izen onaren galera.

2.– Euskal administrazio publikoek erregelamenduz ezarri ahal izango dute nola antolatu irizpide horien aplikazio praktikoa.”

Beraz, hutsegitea tipifikatzerakoan, oso garrantzitsua da goian aipatutako artikulua zehazten dituen irizpenak kontuan hartzea, horren arabera hutsegitea neurtu ez ezik zigorraren maila ere jartzen baita, eta 184. artikuluan zehapenak mailakatzeko irizpideak finkatzen dira.



***0463** NAN zenbakidun igeriketako monitore-soroslearen jarrera, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legean ezarritako falta izan daiteke, 178.k) edo 179.i) eta 179.k) artikuluetan ezarritako falta izan daiteke:

“178. artikulua.– Falta oso astunak.

Falta oso astun dira

(...)

k) Ageri-agerian ez betetzea lanpostuari datzekion funtsezko funtzioak edo langileak esleituta dituen funtzioak.”

“179. artikulua.– Falta astunak.

Falta astun dira:

...

i) Arduradun, mendeko, zuzendaritza-kide eta gainerako enplegatu publikoekiko arreta- eta errespetu-falta larria.

...

k) Arduragabekeriaz jokatzea zereginak betetzean eta errendimendurik eza baldin eta zerbitzuen funtzionamendu normalari eragiten badiote, betiere falta oso astuntzat jotzen ez bada.”

Zazpigarrena: Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen III. kapituluaren diziplina-zehapenak arautzen dira, eta konkretuki, 183.3 artikuluan arau-hauste arinengatik jarri daitezkeen zehapenak ezartzen dira:

“3.– Zehapen hauek ezar daitezke falta arinengatik:

a) Funtzio- eta ordainsari-gabetzea, edo, langile lan-kontratudunen kasuan, enplegu- eta sol data-gabetzea, egun batetik hogeita hamar egun artekoa.

b) Dhartarazpena, Administrazioaren irudi publikoan izandako eraginaren arabera.

c) Etika publikoari buruzko prestakuntza-programak edo -ikastaroak egin behar izatea, baita egindako arau-haustearen izaerarekin zerikusia dutenak ere.”

Zortzigarrena: Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 23ko 7/1985 Legearen 21.1.h) artikuluan ezarritakoaren arabera, alkateari dagokio hutsegiteak zehatzea.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa **ERABAKI DU:**



LEHENENGOA: Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 173. eta 177. artikulua eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 95.artikulua ezarritakoaren arabera, ***0463** NAN zenbakidun igeriketako monitore-sorosleari diziplina-espeditatea hastea, ustezko diziplina-erantzukizuna ebazteko, arestian azaldutako gertakariengatik.

BIGARRENA: Espedientearen instruktore udal honetako funtzionarioa den Karmele Muñoa Arrigain andrea izendatzea.

HIRUGARRENA: Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, eta jakinarazi ezespren-eskubidea baliatu ahal izango duela instruktorea izendatzeari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

LAUGARRENA: Abenduaren 1eko Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 185.7 artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki hau langileen ordezkariari jakinaraztea.

8.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alazne Zumetak adierazi du azken dekretuen erlazioan dekretu batek ez daukala izenbururik.

9.- ESKARI ETA ITAUNAK.

Ez da eskaerarik ezta itaunik egin.

Eta aztertzeke gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidatutakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administratioko zenbakidun paperean jasoko da.

Orrri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E7000C4ADE00L9B5K4L0L5P6

Sinadurea eta data
JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 25/04/2023
MARIA IDOYA PLATAS ARENAZA-ALKATEORDEA - 25/04/2023
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 25/04/2023 14:30:36

DOCUMENTO: 20230805598
Data: 25/04/2023
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

